

Igarako Kanpina eraikitzeko obra Udalak gelditu du

Joan den astean Haritzaldek Igaran zegoen Tenisaren lurretan egin nahi den kanpinerako lanak hasita zaudela eta obra baimenik gabe ari zirela salatu egin genuen. Udaltzaingoak eta Ingurumen Sailatik txostenak egin eta gero, gaur **hirigintzako Zinegotziak, Ricardo Burutaran, obrak Udalak gelditu dituela baieztatu du. Haritzaldetik horixe eskatzen genuen, baina baita zigor zorrotza ere.** Zoritxarrez dagoeneko lanak aurreratuta daude eta Donostiako Plan Orokorrean babesturik zegoen ongi kontserbaturiko bertako landaredi-eremua suntsitu dute.

Haritzalderen ustez proiektua ez zen sekula onartu behar. 2012ko azken Udal Batzari onartu zuten, nahiz eta gure Elkartetik Alkateari eta Ingurumen zain Hirigintza zinegotziei erabakia atzeratzeko eskatu genien. Plan Berezi baten bitartez onartu zen, Plan Orokorra gaituz eta Ingurumen Aholku Kontseiluari informatu edo galdetu gabe.

Haritzaldetik Plan Berezia onartu izana hanka-sartzea izan dela uste dugu eta kanpina behin irekita erabilerak sortuko dituen inpaktuen beldur gara, balio handiko eremu batean kokaturik baitago. Bertan hegoaldeko zuhaitz-igela edo ipurtatsa bezalako mehatxaturiko espezieak bizi dira, eta babesturiko hainbat habitata, landare eta animalia espezie dago. Guk **igara babestu egin behar dela uste dugu** eta hain kaltebera den eremuan trafiko eta jende ugari sartzea ez zaigu biderik onena iruditzen.

Edozein zalantza argitzeko: **609 420 438** edo naturzale@haritzalde.org



www.haritzalde.org